

PRENTSA OHARRA
2008-06-18

HÜBNER KOMISARIOAK ESKUALDEEI ESLEITUTAKO BALIABIDEEN GARDENTASUNA
AREAGOTZEAREN ALDE EGIN DU

Danuta Hübner Europako Batzordeko Eskualde Politikarako komisarioak adierazi du gaur bere zuzendaritza nagusia ahaleginak egiten ari dela eskualdeei esleitutako Europako funtsen gardentasuna areagotzeko, antzemateko zeintzuk diren laguntza horien azken hartzailleak, gardentasun handiagoa lortzeko eta laguntza horien ondorioak hobeto neurtzeko. Hau izan da EELB-Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarreko lehendakariak egindako galdera bati eman dion erantzuna. Lehendakariak, Europako eskualdeetako erakundeetako beste ordezkari batzuekin batera, parte hartu du gaur arratsaldean Bruselan egin den Europako eskualdeen eta Batasuneko Gobernuaren arteko zortzigarren elkarrizketa egituratuan.

Izaskun Bilbaok, Europako 72 eskualderen izenean, aurrekontu-politiken erreformen eta krisi ekonomikoko egungo egoeran burutu beharreko kohesio-politikari buruzko galderak egin dizkio Hübner komisario andreari, eta eskualdeek erkidegoko aurrekontuak egiten parte hartzea eskatu du.

Elkarrizketa egituratuaren zortzigarren ekitaldia gaur, ekainak 18, izan da Europako Legebiltzarrean Eskualdeetako Komiteko lehendakari Van den Brande jaunaren lehendakaritzapean, eta ekitaldi horretan Danuta Hübner eskualde politikarako komisarioak parte hartu du. Komisarioak, kohesio-politikaren bosgarren aurrerapen-txostenaren aurkezpen orokorra egin ondoren, Europako eskualdeetako erakundeek egindako galderak erantzun ditu.

EELBko eta Eusko Legebiltzarreko lehendakariak bi galdera egin dizkio Hübner komisarioari, eta oroitarazi dio Europako komisarioari ordezkatzeko dituen eskualdeetako legebiltzarrek urtero onartzen dituztela beren gobernuen aurrekontuak eta, beraz, eskualdeek kohesio-politika batera finantzatzen dutenez, eragin zuzena izan dezakete haiengan EBko aurrekontuko lehentasunak ezartzerakoan hartutako erabakiek. Horregatik, batzen dituen Batzarrak Berlinen 2007ko urrian egindako osoko bilkuran, onartu zuen, EBko aurrekontuak onartzeko erabakietan era egokian parte-hartzen utzi ziezaietela beren eskualdeetako gobernuen.

Berlinen onartutako dokumentuan, dokumentu horren filosofia defendatu baitu Izaskun Bilbaok Europako Legebiltzarrean, EELBk uste du "Europako aurrekontuen etorkizuneko finantza-egiturak garapen solidarioago eta iraunkorrago baten alde 'europar balio erantsia' dakarten sektoreen inguruan bildu behar duela". Europako legebiltzarretako lehendakarien ustez, "EBren aurrekontuaren erreforma ez dago zabaltze-politikatik bereizita hartzerik". Gauzak horrela, aditzera ematen dute ezen, Europako Legebiltzarrak 2007ko apirilaren 24an hartutako erabakiaren ondotik, hau da "Etorkizuneko zabalpenek kohesio-politikaren eraginkortasunean izan ditzaketen ondorioak" delakoaren ondotik eta egungo izangaiak erkidegoan sartu ahal izateko, une honetan, eta 2007-2013 subentzio-aldiko egitura-sustapenerako soilik, beste 105.000 euro gehitu beharko liratekeela. Horrenbestez,



lehendakarien aburuz, kide berriak sartzeari buruzko etorkizuneko erabakietan Europar Batasunaren ekonomia-efikaziari eta horrek kohesio-politikan dituen ondorioei dagokienez izan daitezkeen ondorioen balorazio bat ere sartu beharko litzateke.

Hori gogorarazi ondoren, Bilbao lehendakariak bi galdera egin dizkio. Lehenengo galdera, ea kohesio-politika eraginkorrerako gunerik dagoen epe labur eta ertainerako, kontuan hartuta aurrekontu-politikaren erreforma, Europar Batasuneko lehentasun finantziarioen berrikuspena eta Europar Batasun osoari eragiten dion krisi ekonomikoa. Hübner komisarioak erantzun dio badela kohesiorako gunerik, eta bermatzen diola hori izango dela Europar Batasuneko politika aktiboa. Komisarioak adierazi du ere lanean ari direla, 2020 urteari begira, erreformaren lehiakortasunerako erronka berrietan.

Lehendakariak galdetu dio ea egokitzat jotzen duen gardentasun handiagoa izatea Europako eskualdeetako balantza finantziarioei dagokienez, kohesio-politikaren eta eskualde mailako politika publiko guztien eraginkortasuna baloratzeko, eta Eskualde Politikarako komisarioak erantzun dio aurrekontua estatu kideen eskumena dela, baina zehaztu du Batzordean ahaleginak egiten ari direla gardentasuna hobetzeko funts horien esleipenean.



NOTA DE PRENSA
18-06-2008

**LA COMISARIA HUBNER ABOGA POR UNA MAYOR TRANSPARENCIA
EN LA ASIGNACIÓN DE RECURSOS A LAS REGIONES**

La Comisaria de Política Regional de la Comisión Europea, Danuta Hübner, ha asegurado hoy que su dirección general esta haciendo esfuerzos por incrementar la transparencia en la asignación regional de fondos europeos, para identificar los receptores finales de estas ayudas, lograr una mayor transparencia y medir mejor los efectos de las mismas. Esta ha sido su respuesta a una pregunta de la presidenta de la CALRE que ha participado esta tarde en Bruselas en la octava edición de diálogo estructurado, entre regiones europeas y el gobierno de la Unión, junto con otros representantes de asociaciones de regiones europeas.

Izaskun Bilbao ha presentado a la Comisaria Hübner, en nombre de 72 regiones europeas, preguntas sobre la política de cohesión en el contexto actual de reformas de políticas presupuestarias y crisis económica, y ha reclamado participación regional en la elaboración de los presupuestos comunitarios.

La octava sesión de diálogo estructurado celebrada hoy, 18 de Junio, en el Parlamento Europeo, ha estado presidida por Luck Van den Brande, presidente del Comité de las Regiones y ha contado con la Comisaria de Política Regional, Danuta Hübner, quien tras hacer la presentación general del quinto informe de avance sobre la política de cohesión, ha dado respuesta a las preguntas formuladas por las asociaciones de regiones de Europa.

La presidenta de la CALRE (Conferencia de Asambleas Legislativas Regionales de Europa) y del Parlamento Vasco, ha formulado dos preguntas a la Comisaria Hübner y le ha recordado que los parlamentos regionales que representa aprueban anualmente los presupuestos de sus ejecutivos, por lo que, debido a la cofinanciación de la política de cohesión por parte de las regiones, pueden verse directamente afectados por la determinación de prioridades del presupuesto de la UE. Por ello, aprobaron en el plenario que celebró la conferencia que los reúne, celebrado en Berlín en octubre de 2007, que se les deje participar adecuadamente, con sus distintos gobiernos regionales, en las deliberaciones para la comprobación de los presupuestos de la UE.

En el documento aprobado en Berlín, cuya filosofía ha defendido Izaskun Bilbao en el Parlamento Europeo, la CALRE considera que "la estructura financiera futura de los presupuestos europeos debe concentrarse en aquellos sectores que aporten un 'valor añadido europeo' a favor de un desarrollo mas solidario y sostenible". Para los presidentes de los parlamentos europeos, "una reforma del presupuesto de la UE no puede considerarse de forma separada de la política de ampliación". En este contexto, indican que, tras la resolución del Parlamento Europeo del 24 de abril de 2007 "Repercusiones de las ampliaciones futuras sobre la efectividad de la política de cohesión", y para una eventual entrada de los países candidatos actuales, en este momento, y solamente para el fomento estructural en el período de subvención de 2007-2013, se deberían aportar medios adicionales por



un importe de unos 105.000 millones de euros. En consecuencia, según la opinión de las presidentas y presidentes, en futuras decisiones sobre la entrada de nuevos miembros debería incluirse una valoración de las consecuencias, también en lo relativo a la eficacia económica de la Unión Europea y a sus repercusiones en la política de cohesión.

Después de este “recordatorio” la Presidenta Bilbao le ha trasladado dos preguntas: La primera acerca de si que queda espacio suficiente para una política de cohesión efectiva a corto y medio plazo, considerando la reforma de la política presupuestaria, la revisión de las prioridades financieras de la Unión Europea, y la crisis económica que afecta globalmente al conjunto de la Unión Europea. La cual la Comisaria Hübner le ha respondido que hay espacio suficiente para la cohesión y le garantiza que esta va a ser política activa de la Unión Europea. La Comisaria añade que están trabajando en los nuevos retos para la competitividad de la reforma en el horizonte del 2020.

A la pregunta de si considera conveniente una mayor transparencia en lo relativo a las balanzas financieras de las regiones europeas para valorar la eficacia de la política cohesión y de cuantas políticas públicas actúan en el ámbito regional, la Comisaria de Política Regional ha respondido que la cuestión presupuestaria es competencia de los Estados miembros, pero ha matizado que se están haciendo esfuerzos desde la comisión para mejorar la transparencia en la asignación de estos fondos.